

2ⁿ URTEA

IBAIZABAL

89ⁿ GUEIA

GANDEETAN IRTETZEN DA

BIZKAIKO ETA GUIPUZKOAKO EUSKERAZ EGUINA

DOMEKETAN URTETEN DAU

1903-ko Agorra-ren
13ⁿEuskalerrian, iru peseta urtean.—Erdalerrian, sei peseta urtean.
Gnei Bakocha, Chakur chiki bat.1903-ko Iraila-ren
13ⁿ

IBAIZABAL-en Echea: Bilbon—Dendari Kalean (Calle de la Tenderia) 19—Jaun José Astuy-renen.
Eskutitz edo karta guztiak zuzendu beitez artezkariaren echea: Tívoli, letra B, 2.ⁿ dextera.

1903ko Sanantolinak

Ibaizabal egunkaria, 1903-9-13

LEKEITIOTIK

IBAIZABAL-en artezkari jauna: Eskutitz au eguitera iguitu nabean asmoa ezta besterik, ezpada ze, done Antolinen izenean erri onetan bere egunean asita gora izan diran jai-jolasak ikusi eztituen guztiari jakin erazotea, beguiakaz ikusi eztabena gogoagaz illunabarrian baño ezpada be ikusi daien.

Eliz-jai. Aurreguneko arrastiko iruretan *Visperak*, kanpa-jote zaratatsu ta luzeagaz iragarrikerri erri onek ospatzen dituan done Antolinen jaiak etozala. Biaramonean, donearen egunean, beti oi dan leguez, amaramarretan Meza nagusia, emengo abade-buruak esan ebala; kantau eben *Gounod*-en meza ederra, ta *Credo*-a izan zan abade jaun Vizente Goikoechearena, zeñek zuzendu ebazan koruko kantariak, organua jorik bere loba Elorrioko organistek, egun orretan ondo-zezirik aurkiten zalako bertoko organista jauna. Guztiz trebe zuzendu, jo ta kantau eben mezea, erakutsirik onenatariko musikuak direala, batez be emengo seme Larreta, Zaragoza-ko kontraltoak bakar-kantaldietan, berari beguira aoa zabalik eukazan entzuten egozanak.

Izkizuna (sermoia) Juan Izurategui Elorrioko abadeburu jaunak eguin euskun, loratsu, egoki ta ekarri berezkoagaz, Antolinen bizitzako eguikizun goratuenak lau, arguiro ta itz errezagaz gomuntau ta azaldurik. Donearen bizitzako eguikizunetatik esan euskun bat ausse izan zan: Bere gurasoak siniste edo fedean eta ekandu onetan sendo asi ebela, ta guero bere osaba gentil Teodorikoren zemaikaitik bildurtu barik, siniste eguiazkoa ukatu baño naiago izan ebala bere bizia galdu. Emen askortu ebazan gurasoak euren umeai siniste eguiazkoak

eta oitura onak emotera, ta guztiok gurasoakandik artu doguzan gauza onak sendo zainduta, Antolinen bideari jarraitu, ta berak daukon gloria jaristeko. Azkenez eskari samur batzuk eguin eutsezan doneari, arrantzaleak ichas baltzak bere aserrean iruntsi nai dituean eztaiala laketu orrelakorik, Euskalerritari biurtu daiozala bere libertade zarrak eta oitura onak, erri-echeko guizonai indarra erabagui zuzenak euren batzarretan artzeko, ta bardin eliz-guizonari euren zereguinak beteteko. Eliz-jaiak goratu ta aunditasuna emotera aleguindu diranai guere orduonerakoa.

Meza-nagusi ondoren prozeziñoia kalerik-kale musikiagaz, eta biaramonean arrantzaleak euren anaia izan zireanen arimai eguiten deuten elizkizuna bere berbal-diagaz.

Jolasak edo jai-ganutsak. —Illaren bian elizako zereguinak eguindakoan, musikia dantzia ta aureskua (1)¹. Iruan, goissean pelotakia ta arratzaldean pelotakia. Goissekoa eguin eben Baltasar eta Izetak, Urzelai ta Barberon kontra. Baltasarrek beti lez chit ederto jokatu eban baño Izetak makal; orregaitik galdu eben. Arratzaldean jokatu eben guernikarrak markiñarren kontra, guernikarrak irabazi ebela; lumoarrak guztiz ondo jokatu eban barruan. (**Don Antonio Maura ministro-izana be emen euki guenduen egun orretan. Adanenean bazkaldu ta gauberako Bermiora joan eizan**). Lauan, goissean abereen arri-jokua edo probia, ta arratzaldean, antzarren sama kentzea ta masta puntakoa; guero musikia tanboliña ta dantzia. Aureskua *Marqués de Socorro*-en seme Jose Marik eguin eban illuntze aurrechoan. Bostean, goissean amarretan *feriea*; abere enda garbienak

¹ Gabas *Vizcaytik Bizkaira* aguertu eben Garabillen biltokian

eta muetarik onak buztarrirako, esnerako ta okelarako sariturik erriak. Adan-Yartza Mario jauna izan zan jurado bat arazo orretarako, guizonik aituenta lez. Asmo ederra ta onuratsua nekeza-leentzat aleguindu daizan erri-abere garbiak zabalten, montañes okela baltzak kendurik. Lekeition illean beñ feria bat bear litzateke, erriak sari orrek izentau dituan ezker; urtero guichienez. Amabiak aurrean aureskua eguin eban Santiago Meabe ezkonbarriak, bere oñetako bizitasuna erakutsirik. Arratzaldean palanketa zulokia arrian; iruk eguin eben joko au, Lekeitioko, Berri-tuko ta Markiñako batek, irabazirik saria azkenengoak; batek be ezeben eguin uste ebenik. Seian, elizako zereguiñen ostein jokatu eben pelotan Baltasar eta Kantabriak, Urzelai ta Larrañagan kontra; lenengoak irabazi eben, joko guztian aurretik ibillita. Kantabriak aurrean ederto ta gogor jokatu eban; noiz edo noiz Baltasar guizaisuai lagun on bat aguertu jakonean. Arrastian Aulestiko aita-semeak guernikarren kontra; arek irabazi eben.

Lekeitioar erbestean bizi diranak eta ainbakoak, jente asko izan da egun orretan. Jaietan emen eguin direan jolas guztiak izan dira euskaldun usain eta garatsikoak.

Gueiagoko esakizun бага zeure biotzeko adiskide.

A.

1903 Iraillen 7 Lekeition

Ibaizabal astekari bilbotarra *Euskalzale* aldizkariaren jarraipena izan zen, hura zarratu, hau zabaldu. Euskara hutsean idatzi izanak ez zion lagundu: 1902 eta 1903 artean 103 zenbaki bakarrik argitaratu zituen. Evaristo Bustinza Kirikiño izan zen zuzendaria baina atzetik Resurrección zebilen. Ideologiari dagokionez teoriar, asmoz, apolitikoa zen, baina azken hileetan Kirikiño abertzaleen ideien alderantz okertu batzuentzat, zuzendu beste batzuentzat, egin zuen.



Euskal prentsaren lanak
hemeroteca.eu

